

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 274. zenbakia. 2019ko urtarrila



**Kandelerixoz aterri,  
negua atzetik...**

**30 urte hauetan Ermuan euskaraz bizitzeko lan handia egin dugu, baina erronkaz beteriko etorkizuna dugu aurretik eta zure laguntza ezinbestekoa izango da. Ermua euskalduntzen jarraitu nahi dugulako...**

# egin zaitez bazkide!



## Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 174344 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusibook:

**Allianz**   
Seguros

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa Elkarte  
Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Estibalitz González.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Esti Arrizabalaga.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Evaristo Pérez,  
Paco Escalante,  
Zipriztintzen,  
Anaitasuna Ikastola,  
Esti Arrizabalaga,  
Ermuko Pentsiodunen  
Taldea, Isa González,  
Valentin Mugarza,  
Betiondo taldea,  
Rosario Aranburu,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ibon Txurruka, Piedi  
Eizagirre eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

**Erronda kantua**

## Ipurtzulua

Ipurtzuluak ditxu  
hiru elementu:  
kaka,  
kakaratz  
eta tormentu!



(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Evaristo Pérez (Argentina)	KIROLZALE .....17 Betiondo arku-tiro taldea
ELKARRIZKETA .....5-7 Paco Escalante	IRITZIA .....18 Gure bazterrak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Egurdalaxe	ZORION-AGURRAK .....19 Saldu, erosi edo aguritu
MOTZEAN .....10 Mallabitarak Dantza pelikulan	ANTZINAKOAK .....20 Ermua eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA .....12-13 Zipriztintzen taldea	SAREAN GALDEZKA .....21 Zein da zure helburua 2019. urteari begira?
ESKOLEN TXOKOA.....15 Anaitasuna ikastolako berriak	OTSAILEKO AGENDA ...22
ERMUAN ZER? .....16 Pentsiodunak borrokan	

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Evaristo Pérez

Ibiza eta Argentina artea joan-etorrian ibili eta gero San Martin de los Andes hirian bizi da gaur egun Evaristo Pérez. Larruzko osagarriak saltzen ibili zen munduan zehar, eta gaur egun denda bat dauka Argentinan: Muxus. Instagramen @muxustaller bezala aurkitu dezakezue eta muxustiendataller.com da bere webgunea.

### -Noiz joan zinen Argentinara?

Orain dela 17 urte neska argentinar batekin hasi nintzen irteten, gaur egun nire emaztea dena, eta 9 urtez Ibiza eta Buenos Aires artean ibili ginen, udako denboraldiaren arabera. 2012an herrialdearen hegoaldera etorri ginen bizitzera, San Martin de los Andesera. Patagoniako hiri turistikoa da eta Ibizan egiten genuen gauza bera egin dezakegu hemen. Ibizan larruzko osagarriak egin eta saltzen genituen, eta hemen eskuz egindako larruzko gauzak egiteko tailerra sortzea eta Muxus izeneko denda zabaltzea erabaki genuen. Gure sorkuntzak saltzen ditugu, urteetan zehar handituz joan den bilduma: poltsak, gerrikoak, gerriko poltsa, soin-uhalak eta osagarri gehiago.

### -Zergatik erabaki zenuen han geratzea?

Nire emaztea eta biok hara eta hona ibiltzeaz nekatuta geunden eta hemen geratzea erabaki genuen. Orduan, etxea eraiki eta zabaldu genuen. Gure etxeak inguruko mendietara begiratzen du, zoragarria da. Tailerra ere naturaz inguratuta dago eta oso eroso da hor lan egitea. Gainera, bi katu ditugu, Chimi eta Churri.

### -Nola egokitu zinen Argentinan bizitzera?

Han bizi aurretik sarritan joan nintzen, beraz, herrialdea ezagutzen nuen gutxi gorabehera, baina ez da gauza bera han bizitzea edo egonaldi laburrak egitea.

### -Bizimodua ezberdina da Ermukoarekin alderatuz?

Nire bizimodua bai, ez-



berdina da. Ez daukat familia edo lagunak inguruan eta euren hutsunea asko nabaritzen dut. Tailerraren eta dendaren artean pasatzen ditut egunak. Bestetik, hiri turistikoa izanik, jende berria dago etengabeko joan-etorrian.

### -Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Bizi naizen tokia eta nire etxearen lasaitasuna, egin nahi dudana egin ahal dudalako bertan.

### -Eta gutxi?

Nire familia eta lagunengandik hain urrun bizitzea. Munduaren amaieran bizi

naiz eta zaila da norbait hona bisitatzera etortzea edo alderantziz.

### - Zer botatzen duzu faltan?

Esan bezala, familia eta lagunak. Baita gure hainbat ohitura ere: kalera irtetea eta jendea txikiteoan aurkitzea, adibidez.

### -Ermura bizitzera bueltatuko zara?

Ez dakit. Ez dut aukera ukatzen, baina orain oso pozik bizi naiz. Ermura gehiagotan joatea gustatuko litzaidake, baina oso urrun gaude eta zaila egiten da.

Ekhi Velar



**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Paco Escalante, gerrako umea:

## **“Ez daukat inongo kexarik Sobietar Batasunaren inguruan”**

Orain dela hilabete batzuk euskaltegian izena eman zuen Paco Escalantek. Eukara ikastearen arantza dauka. Bere anaiak badaki, “Mallabian hazi zelako”, baina Paco Gerra Zibilean Sobietar Batasunera joan ziren umeetako bat izan zen eta han pasa zuen gaztaroa (hemeretzi urte eta erdi, zehatzago esanda). Beraz, euskaraz ez, baina errusieraz badaki egiten. Memoria oneko gizona, Sobietar Batasunean pasa zituen urteen kontaketa egin digu solasaldi atseginean.

- *Gerra Zibilean Sobietar Batasunera joan zinen. Nola?*

1937. urtean, 5 urte nituenean, amak Bergaratik Barakaldora eraman zigun Maria nire arreba eta bioi, aita frontean zegoelako. Gainera, amaren bi neba ere joan ziren gurekin: Angel (Sobietar Batasunean hil zena biriketako gaixotasunarekin) eta Juan (nik baino lau urte gehiago dituen eta oraindik bizi dena), eta Santurtziko hiru lehengusu ere. Labe Garaietan lan egiten zuen osaba baten etxean geratu ginen lehenik. Ekainaren 13an itsasontzian igo eta Leningradoraino joan ginen (San Petersburgo, gaur egun).

- *Zuzenean?*

Lehendabizi Frantziara joan ginen 'Habana' itsasontzian eta, gero, 'Sontay' izeneko barkua hartu genuen. Beti pentsatu nuen itsasontzia txinatarra zela.

- *Nola gogoratzen dituzu Sobietar Batasuneko urteak?*

Oroitzapen onak ditut. Leningradotik Odesara bidali ziguten, 'Euskaldunen etxera'. 500 lagun inguru geunden han, baina 5 urtez azpiko 28 haurri aparte utzi ziguten. Hiriaren kanpoaldean zegoen, etxe handiz inguratuta (Errusiar Iraultza baino lehenagoko handikien etxek). Oso ondo zaindu ziguten, erregeak bezala bizi ginen. Eskolan hasi ginen, gainera. Handik hurbil Asturiaseko beste ume batzuk bizi ziren beste etxe batean eta Euskal Jaiak egiten genituean gurera etortzen ziren. 'Asturias, patria querida' abesten zuten.

- *Sobietar Batasunera iritsi eta denbora gutxira II. Mundu Gerra hasi zen. Zer egin zenuten?*

Odesatik ebakuatu ziguten eta Dnieper ibaiaren bokalera iritsi ginen, Khersonera, eta egun bi egin genituen han. Motxila bat eman ziguten, ogi zati handi batekin eta sardina-lata batekin, eta Zaporizhiara joan ginen trenean. Dnieper ibaiko irla ba-

## "Odesako portua bonbardatzera etorri ziren eta gertu eduki genuen gerra"

tean egon ginen pare bat aste eta, ondoren, Ipar Kaukasora joan ginen trenean. Lbinsk hirian egon ginen, Krasnodar hiriaren hegoaldean, Kaukaso mendilerroa hasten den tokian. Negua hasi zenean trenean sartu ziguten berriz eta hilabete egin genuen trenean sartuta Stalingradora iritsi arte. Gero, 800 kilometro gehiago egin genituen Saratovera, Volga ibaiaren ertzera.

- *Nola pasatzen zenituzten bidaia luze horiek?*

Ondo esan beharko! Ondo jaten genuen (sardina-kontserbak, behi-mihia, marmeladak...), ekintzaren bat egiten genuen (tabakoa mozten zen landa batean hostoak jasotzea, adibidez), baina elurra egiten hasi

zenez nahiko gogorra izan zen.

Stalingradotik Saratovera ez dago distantzia handiegirik, baina II. Mundu Gerrako frontea hurbiltzen zegoenez inguru hartako fabrikak husten hasi ziren eta bidaia asko luzatu zen. Batzuetan bide erdian geratzen ginen, bakar-bakarrik, dutxatzeko aukera barik. Zenbat zorri!

- *Ez zenuten II. Mundu Gerra gertutik bizi?*

Odesako portua bonbardatzera etortzen ziren eta gertu eduki genuen gerra. Trintxerak egin zituzten gure etxearen jardinean. Jendeak foballean egin ohi zuen jardin horretan eta eibartar batzuk zeudela gogoratzen dut. Nagusi batzuk Kievera eraman zituzten abiazioa ikastera eta horietako bat, Eugenio Prieto, Ejerzitu Gorriaren kapitaina izan zen.

- *Zer moduz Saratoven?*

Nagusiak eskola-profesionaletara joan ziren eta, ikasteaz gain, lan egiten zuten. Baita nire osaba ere. Hango institutu batean pasa genuen negua gerrako umeek. Ondo zainduta egon ginen, ahal zen heinean, eta eskolara joan ginen. Beti eduki genuen eskolara joateko aukera.

- *Gazteleraz edo errusieraz jasotzen zenituzten klaseak?*

Errusiara joan zenean ilea moztu zuen Pacok.



**mari  
asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**uriarte asesores**   
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza  
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

## “Erdia errusieraz eta erdia gaztelera egiten genuen eskolan”

Gaztelera. Errusierazko liburuak gaztelera itzuli zituzten. Gero, laugarren mailatik aurrera errusieraz egiten genuen eta gaztelera irakasgaia geneukan.

**- Errusiera erraz ikasi zenuen?**

Bai, tira. Erdia errusieraz eta erdia gaztelera egiten genuen eskolan, hizkuntza biak nahasten genituen.

**- Negua pasata, zer egin zenuten?**

Hiriaren kanpoaldera eraman ziguten, 15 kilometrotara zegoen datxa batera (txalet baten antzekoa), Orlovskoyen. Hilabete egin genuen han eta gero Volgatik gora eraman ziguten herri txiki batera. 1945 urtera arte egon ginen han, II. Mundu Gerra amaitu arte. Egunean hiru aldiz ematen ziguten jatekoa, baina nahiko eskasa zen. Udan ondo pasatzen genuen, inguruko zelaietan fruituak lapurtzera joaten ginelako. Negua oso hotza da han, baina lur beltzak dituzte, oso lur emankorrak, simaurrik behar ez dituztenak. Sandiak, meloiak, tomateak, luzokerrak... denetatik zegoen.

**- Handik nora joan zintzen?**

Gerra amaitu zenean Marx hirira (Karl Marxen

omenez zuen izen hori) joan ginen. Saratov eta Orlovskoye inguruan zegoen, Volgako Alemaniarren Errepublikan Autonomoan. Marxetik Moskura joan ginen Volga ibaitik itsasontzi batean. ‘Lomonosov’ izena zuen barkuak eta handia zen. Bidean Gorki hirian geratu ginen, oso hiri garrantzitsua sasoi hartan, gaur egun Nizni Novgorod izena duena. Maksim Gorki idazlea han jaio zen.

**- Bitartean, Euskal Herrian zegoen familiarekin kontaktua mantentzen zenuen?**

Odesan geudenean bidali genuen eskutitzen bat eta atera genituen argazkiak hona bidaltzeko, baina nire osabak arduratzen ziren horretaz.

**- Moskun denbora luze geratu zintzen?**

Moskutik 30 kilometrotara dagoen hiri batera eraman ziguten, Najavinora, eta han egon ginen 1946 urtera arte. Handik datxa antzeko batera eraman ziguten, Solnechnogors hirira, eta handik beste herri txikiagora batera eskolako 7. urtea ikastera. Gero, nire arreba beste hiri batera joan zen, 10. mailan zegoelako, eta nik 8. maila Krimean egin nuen, Yevpatorian. Han de-

Eskola teknikoan egin zituen ikasketak Moskun



netariko arropaz betetako maleta eman eta Moskura bidali ziguten bueltan, Bolshhevara zehazki. Han amaitu genuenean inork ez zigun esan zer egin eta eskolatekniko batera joatea erabaki nuen. Errepide eta Zubien Eraikuntza karrera egin nuen Moskun, Bakunin kalean.

**- Gero, lanera?**

Karrera amaitzean Errusia iparraldera joan nintzen lanera eta langile talde bat eduki nuen nire esanetara hasieratik. Zubiak kentzen eta berreraikitzen ibili nintzen, harrobia batean baita ere, eta Kingisepp eta Slantsy batzen dituen errepidea eraikitzen egin nuen lan.

**- Noiz itzuli zinen Euskal Herrira?**

1957an. Nire osabak 1955an esan zidan espainiarrak aberriratzeko ekimena martxan zegoela eta, nahi banuen, itzuli ahal nintzela. Nik baietz esan nion eta paperak bete nituen, baina 1956an Ejerzitu Gorrian sar-

tu ninduten. 20 urterekin errusiar nazionalitatea hartu nuen eta soldadutza egin behar izan nuen. Han egon nintzenean hoztu egin nintzen eta 20 egunez ohean geratu nintzen. Sendatzera koan ez nintzen gehiago ejerzitura itzuli eta lanean hasi nintzen berriz. Eguberri berriz deitu zidaten ejerzitutik eta azterketa bat egiteko eskatu zidaten. Nik uko egin nion eta tanke-eta edo marinara joateko aukera eman zidaten. Tanke-kuartel batean hiru hilabete pasa nituen Finlandiatik gertu eta banderaren zina egin nuen. Handik gutxira Gurutze Gorriaren telegrama jaso nuen, Espainiara joateko aukera nuela esanez. Arreba eta biok Moskutik Odesara trenean joan ginen eta han Crimea izeneko itsasontzira igo. Castellora iritsi ginen eta aita genuen han zain. Azken finean, ez daukat inongo kezarik Sobietar Batasunaren inguruan.

Ekhi Velar





SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 [www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

# ...Kandelerixoz euri, laster udabarri

Gure parajiotan egualdixek beti emon dau jokotxue. Eurixe, haixie edo edurre izan, konbestaziñorako atxakixie eskure beti. Aberatsa da euskerie meteorologia kontuetan eta sortarazi daben jakindura ikaragarrixo jasotzeko asmoz, gora begire parau gara.

**E**satzen dabenez, finlandarrek edurre izendatzeko 40 modu desbardin dakez. Guk be banaka batzuk bada-gaguz: **edur-ure**, eurixe eta edurre bixek nahaste jausten danai deitzen jako; **edur** sikue, urunan modure jausten dana; **edur-zehie**, ondiñok txikixie dana; **edur-mataz**ak edo **malutak**, pla-plalodi eta sendo jausittekotoian estiloko edur-tantana zapalak die, franko bota ezkerodana zuri lagako dabena; **edur-lapatxa**, juxtu-juxtu zuritzen daben edur kapa fiñe; **edur-pikorra**, botlatxuetan jausten dana; **bi-**

**sutze**, haixe bihurrixen eragiñez trabesera sartu, edurzurrunbilluek altxau, ezer ikusterik ez, eta totaleko arriskutsue dana. **Edurre zerratu** eittie, sendo eta gogoz eittie, **mihetz** eittian juxtu kontrakue da. Egualdixek edurre dakarrela erakusten dabenien, **edur-girue** edo **edur-usaiñe** dauela esaten da; mendi goikaldien dabilzen animalixak, egualdixek eraginde herberara bajeten die. Umiek be prenda edarrak die egualdixai tajue emoten eta aztoratute, sosegau eziñik dabizenien, esakera politte dago Mallabixen: **“Edurrek ein bittu,**



**badatoz denporale txarrrak!”**. Esakerokin jarraituz, mendi tontorrien edurre urtu barik badao luzeruen, **“horrék barrixe eskatzen dau”** esaten da eta izan leike baitte **“edurre eitteko baiño hotzao”** egotie... Behin edurre einde, ezebez gozagarrixaorik **edur-bolak** eñ eta alkarri botatzie baiño!

## “Ezkur urte, edur urte”

Gaba da izotzan lagun haundiñe eta karrailue urputzu, aska eta kotxe-kristaletan eitten dan izotz kapie da. Kontuz gero **izotz-baltzaz**: zurittu ez, ikusiterik ez, baiña arriskutsue... akabo! **Surdaixe** be izotza da: laiñuek botatzen daben umedadie jausi, hotzan-hotzaz gogortu eta zuri esnatzen die arbola, solo eta otak. Behin izotzak hartu ezkerodana, lora eta landara gehixenei marrotzie eta gal-

tzie besterik ez jakue gertzen. Ortuen dauezen porruei, ostera, ondo etorten ei jakue **edurteren** bat hartzie, jateko orduen bigunauek egoten ei dielako.

## “Euzkixe ta eurixe, Martiko egualdixe”.

Eta bixek batu ezkerodan austarkue edo ostar-kue ageri. Baztarrak urtzeko, euzkixan gozotasune da zalantza bako lagunik onena eta haixie bera be ez da makala. **Hegoie, hego-haixie, zoro-haixie, andra-haixie enbra-haixie** edo **Napar hegoie** lez ezagutzen dogun haixionek epelera jotendau, inguruek sikatzera. **Iparrrak, Frantzi iparrak** eta **nortiek** edo **nordaixiek** itsasoko putzek ekarten dabez: udan freskuek, hotzak neguen. **Mendebala, Oiztik beherakue, euri-haixie** eta **hego-mendebala** bustittik sartzen die beti, barru zein kanpo, danak umelduz.



## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua





Haixie geratziaz batera, sarri dator **eurixe** eta honen barri aurretixez eukitzen dau okillek: kantuen badihardu, euri-egarri dan seiñale. **Zirimirixe** esaten jako indarge samar jausi, baiña azkenerako busten daben euri iñuzentia eta aldra berekuek die **euri-ziriñe, zikiñe, lanparra, lanbrue, gurmie** eta **euri-lorriñe**. Malla-biko esakera batek akordure ekarten doskun lez, "**azerixe busti ebenak**" die horrek danok, guardasol barik atrapau ezkeru mela-mela eitten dabelako. **Euri-kisixek** tanta ezebeztxuek die, eurixe hasten danekuek, eingo ez eingo... **Edur-kisixek** be antzerako, ez baixen, bota ez bota... Altxau eziñiko egualdixe **narrasa** dan modure, ganoraz botatzen dabenien **euri-mardule, zaparradie** eta **ur-arrebatue** esaten jako; **afrontue** eurixe eta haixie batera eta trabeska ekarritteko euri zazkarra da; **azarue**, luzeruen ein barik egon eta zakarkerixa bako eurixe eitten dabenien da, eraitteko sasoi ona; neurritz kanpo eitten badau, **eurixe goixen behien** edo **eurixe bota ahalan**... Gogotsu eindako **euri-jasen** atzetik, makiña bat bidar ikusi doguz ujelak eta **urixolak** erreka zein ka-

miñu baztarretan, eta urek bultze einddeko **luperixak** solo eta basuetan.

Egualdixek **okerrera** ein leike eta **txingorra** bota be; **harrixe** edo **harri-abarra** txingor haundixe da, mallatzen dabena. **Tripekilaiñuek**, moltzoka baiño zabal-zabal agertzen dien laiño txikixei deitzen jakue, atzetik trumoie eta eurixe dakarrenak. **Oiñes-tue, oiñeztarrixe** eta **oiñez-targixe**: zerue argitzen daben briztadiai esateko hiru modu. Haren atzetik, brum!, burrundadaka **trumoie**. Hau zoratute dabillenen, leku baten jo, beste baten ez, "**zér rue pasau da**" esaten jako: laiño batek kanal edo kurtiña moduko bat eiñaz, eurixe bota eta bota doianien. Trumoi en eragiñez botatakuai **trumo-zaparrarie** deitzen jako, segixen atertut eta altxatzera eitten dabena. **Trumo-egualdixe** edo **sube-denporie** be esaten jako sargoritsu, erretxin, ointxe euzki ointxe laiñope, trumoie noz joko dauanien.

**"Marlgonagorri, euzki ala euri?"**  
**Gora Juten baza euzki, behera Jausten baza euri.**  
**Biba Marlgonagorri!"**



Gonagorrixok bero zaliek dienez, uda aldien ikusten doguz endemas. **Euzki-begixe** ez dan lekuetan be berue badaki eitten: **motela** pisutsue, trumoitsue... **bero zatarra** edo **zazkarra** izerdirakue, neurritz kanpokue... Edarto dakigu zer dan **bero naturala**, zer haren kontra **giro sargorixe**, astune eta umela iñun bada, eta susmau leikegu baitte **bero galdatan** erretzie zer izan leiken.

Goixeko **iruntzek** be majo melatzen dauz bazterrak. Goixetan sarri-sarri egoten die Ermua, Mallabia eta Eibar bera be **behe-laiñotute**, txapela jarritte: egualdi ona datorren seiñale! Euzkixek berotu ahala, argitzera eitten dau. Mende askuan

holan izan eta mikroklima txiki bat sortu da bertan, basoko landare eta animala espeziei eragiten dotsiena, naturazalien gozamerako.

Amaitzeko, bateron bati isildu eragitteko Mallabixen esaten dan esakerie iñun bez hamen baiño egokixao: "**Atertu hadi atertu!**". Eta hoixe eingo dogu ba! Ez baina hau osatzen lagundu doskuezen "meteorologo" mallabittar guztioi eskerrak emon barik: Maite Unzurrunzaga, Mari Tere Urkidi, Mari Karmen Urkidi, Santos Aranburu, Rosario Narbaiza, Enrique Mugarza, Alicia Mugarza, Oskar Larrakoetxea, Imanol Mugarza, Idurre Gallarraga, Miren Sangroniz eta Pello Mugarza.

Estibalitz González



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Toldoak</li> <li>- Ostalaritzarako muntaiak</li> <li>- Pertsianak</li> <li>- Instalakuntzak eta konponketak</li> <li>- Motorizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Manparak</li> <li>- Segurtasun pertsianak</li> <li>- Pertsiana dekoratiboak</li> <li>- Estoreak</li> <li>- Eltxo-sareak</li> </ul>
<p>Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)</p>	<p>Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com</p>





**SEHIGA**  
PROTECCION LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

Mayte

Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

---

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**XVI. BIHARKO IZARRAK MARTXAN**

Mallabiko Malle Euskal Pilota Klubak antolatzen duen Biharko Izarrak txapelketa abian jartzeko asmoz, aurkezpena otsailaren 18an egingo da Trabakun. Hilaren 21ean hasiko den lehian, 18-24 urte arteko 24 pilotarik hartuko dute parte, eskuzko modalitateko 12 aurrelari eta 12 atzelarik, Euskal Herri osotik etorritakoak. Elkarren arteko ligatxo bat jokatu ostean, finalurrekoak maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an ospatuko dira eta finala ekainaren 14an. Nesken artean zaletasuna suspertze aldera ere, txapelketak irauten duen hilabeteetan, haien arteko pare bat festibal daude aurreikusita. XVI. edizioa da aurten goa, Mallabiko Udala eta inguruko hainbat enpresen laguntzarekin aurrera ateratzen den txapelketa-rena.

**BERBALAGUN MENUA**

Ermuko Berbalagun egitasmoan ekintzak ahalik eta arrakastatsuen egiteko asmoz, jendearen iritziak jasotzen hasi dira.

**BERBALAGUN MENUA**

**Xehetasunak:**  
 HIRU eguneko egitasmoa da, bertan eta kanpoan (Euzko Mendialdean) zehaztutako lekuetan. Aurrerantzean, bertan eta kanpoan zehaztutako lekuetan. Aurrerantzean, bertan eta kanpoan zehaztutako lekuetan.

**Programaren aurkezpena:**  
 10:00etan 11:30rako  
 12:00etan 13:30rako  
 14:00etan 15:30rako  
 16:00etan 17:30rako

**Non?**  
 Ermuko Berbalagun egitasmoan.

663 070 492

**Amalia Martinezek olerki liburu berria aurkeztu du**

“Palabras de paz” da idazle ermuarraren azken liburuaren izenburua, bere laugarrena “¿Quién soy?”, “Ayer, hoy, mañana” eta “La realidad que los sueños quisieron borrar” lanen atzetik. Lobianon egin zuen aurkezpenean, egileak aipatu bezala “honekin aurreko liburuetan planteatzen nuen bizitza-borroratik haratago mezu bat bilatu nahi izan dut. Hemen gaude, ez dakigu nora goazen, beraz bakean bizi gaitezen, baina batez ere bizi!”. Maite Lorezok dinamizatzen duen Eibarko “Itzamna” Poesia Tailerreko taldekideen esku egon zen Amaliaren olerki batzuk errezitatzearena. Lana herriko bi liburu-dendetan egongo da salgai.



**“Dantza” filma Ermuan**

Kritikaren esanetan apustu desberdina eta ausarta egin duen “Dantza” filmak arrakastatsu jarraitzen du aretoz aretoko bere ibilbidea eta Ermura etorriko da urtarrilaren 26, 27 eta 28an. Telmo Esnal zarauztarrak zuzendutako lan berri honetan, hiru dantzari mallabitarrek hartzen dute parte: Unai Txurruka, Luken Aranburu eta Eider Gisasola. Drogeteniturri 259. zkian. argitaratutako elkarrizketan Lukenek aipatu bezala “parte hartzea benetan berezia izan da”.



**Urtebarri egunean Urkora**

Aspalditik datorkigun ohitura da urte jai berriari hasiera ematea Urkora osteratxoa eginda. Hainbat eta hainbat lagun igo zuten egun horretan tontorreraino, goiztiarren eguzki izpitxo batzuen epeltasunean eta berantiarren lanbro euritsuaren behe-lainoan. Batzuk txanpana ere altxatu zuten goraino eta, bezperakoak oraindik aldean izan arren ere, zurrutada ederra eginez, barrura demontre! “Hurrengo urtian be berton izateko izan gaitzezela!” esanda, topa egin eta, izerdiarekin hoztu aurretik, beherantz.



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
 Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**MALLA**  
 ileapaindegia

Probaleku 8, behea 943 17 18 50

# “LEINN ikasketak lehengo egunetik praktikoak dira, lanean ikasten baitugu”

**Aitor Ferreño Mallabian bizi da, 19 urte ditu eta LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko 2. maila ikasten ari da.**

**- Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?**

Mallabian ikasi nuen 6. mailara arte eta gero DBH egitera Lauaxeta Ikastolara joan nintzen, oso gustura egon nintzen bertan.

**- Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

LEINN aukeratu nuen metodologia berri bat zelako, 2. Batxilergoan konturatu nintzen ez nentorrela bat hezkuntza tradizionalarekin eta, LEINN ezagutu nuenean, ikusi nuen metodo parte-hartzaile bat zela, eta nirekin bat zetorrela konturatu nintzen.

**- Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

LEINNeko esperientzia Mondragon Unibertsitatean oso ona izan da. Erabiltzen dugun metodologiari esker, askatasun handia daukagu, gradu oso praktikoa da, proiektu errealak garatzen baititugu guk aukeratzen ditugun sektoretan, beharrezko eta gustuko gauzak ikasten. Horrek asko motibatzen zaitu aurrera egiteko.

**- Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Metodologia berri bat da, 10 urte baino ez dituena. Niri asko gustatzen zait, behar ditugun gauzak ikasten ditugulako. Beharra ikusten dut eta, horren arabera, ikasten hasten naiz, bestela ez dago zertan ikasterik. Hau da, oinarriko ezagutza bat dau-

kagu baina, hortik aurrera, norbera libre sentitzen da sakontzeko ezagutza horretan.

Gure ikasketak, lehengo egunetik praktikoak dira, lanean ikasten dugu. Alde batetik, oinarriko ezagutza jasotzen dugu eta, beste alde batetik, proiektu bat ari naiz garatzen ikuslearen esperientziari buruzkoa. Proiektua aurrera ateratzeko marketinari eta beste diziplina batzuei buruz ikasi behar dut nire proiektua osatu ahal izateko.

**- Zer nolako ekarpena egingo duzu LEINN metodologiak?**

Nik lau urtez enpresa bat eta proiektu-talde bat garatzen ari naiz, eta lau urteko esperientziarekin irtengo naiz, mundu erreal batean aplikatuta. Lau urtetan zehar, gainera, hiru bidaia handi egingen ditugu, Finlandiara, lehen urtean; San Frantziskora (Estatu Batuak), bigarren; eta Txina eta Indiara, hirugarrenean. Honi esker, bizi garen mundu multikultural batean prestatuago irteten gara, nazioarteko proiektuei eusteko prest.

**- Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Momentu honetan bi bide ditut garatzeko. Alde batetik, Zenit, LEINN barruan sorturiko nire enpresa. Gustatuko litzaidake, gradu ko lau urteak igaro ondoren, enpresak bizirik jarraitzea, gaur egungo talde berdinarekin eta, beste alde batetik, Mondragon Unibertsitateari



esker, aukera eman didate Kenyara joateko, bertan lehiaketa batean parte-hartzeko. Lehiaketaren helburua izango da gure enpresa han garatzea, bertako jendeari laguntzeko. Gustatuko litzaidake hemendik urte batera han ezartzea gure proiektua eta aurrera jarraitzea hango jendeari laguntzeko.

**- Azaldu apur bat gehiago zertan jarduten duen Zenit zuen enpresak?**

Hamahiru kidek osatutako proiektua da, gure ezagutza denon artean konpartitzen dugu, bata besteari laguntzen. Nik Zenit barruan C-XI deituriko proiektua ari naiz garatzen, gauza ezberdin

asko egiten ditugu bertan; adibidez, futbol talde baten marketina lantzen ari gara, eta gure helburua da ikusleek rol aktiboago eta parte-hartzaileagoa izatea.

Beste proiektu bat Akiba Matabi deitzen da, Nafarroako Unibertsitateko mutil batekin eta Kenyako neska batekin garatzen ari naizena. Orain dela gutxi Kenian egon nintzen eta ikusi nuen hango gazteek oso ideia onak eta gogo asko dutela, baina hezkuntza da bertan falta dena. Guk nahi duguna da ekintzaileen “tribu” bat sortzea, formazioaren bidez proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko.

# Hamar urte berdintasunaren alde bustitzen

Zipriztintzen berdintasunaren aldeko taldeak hamar urte bete ditu. Gauza asko egin dute, baina argi daukate askoz ere gehiago egin behar dutela borroka honetan. Euren webgunean ([zipriztintzen.wordpress.com](http://zipriztintzen.wordpress.com)) ematen dute horren berri eta gaur egunera arteko ibilbidea, gaur egungo jarduna eta etorkizunaren inguruan egin digute berba.

**B**erdintasunaren aldeko taldea da Zipriztintzen. “Berdintasunaren alde egin, feminismoaren aliatua izan eta gure matxismoarekin amaitzea dugu helburu”, esan digu Ander Prol Zipriztintzen taldeko kideak. Elkarteko kide berrietakoa da Ander, baina Zipriztintzen taldeak hamar urte bete zituen ekainean.

Emakumeen Topalekuak maskulinitate berriei buruz antolatutako hitzaldi baten ondorioz sortu zen Zipriztintzen. Hitzaldiaren ondoren tailerra egin zuten hainbat astetan zehar eta Zipriztintzen taldeak jarraipena eman zion guzti horri. 30 lagun inguru joan ziren hasiera batean tailerretara, baina 14 lagunek amaitu zuten eta euren sortu zuten Zipriztin-

tzen. Urte hauetan jendea taldetik irten eta sartu egin da, baina elkarteak martxa betean jarraitzen du bere jarduna. “Inguruko herrietan antzeko taldeak sortu ziren, baina ez dute jarraikortasunik eduki epe luzean. Hala ere, badugu harremana beste tokietako gizon taldeekin”.

Zipriztintzen taldekoek euren inguruan aldaketa egon delanabaritzen dute, “eta uste dugu gizartearen ere sentsibilitate bat dagoela gai honen inguruan, baina gizarte honetako gizon gazteak ez dira gai honekin konprometitzen. Politikoki zuzena da berdintasunaren alde gaudela esatea, baina aldaketak egitea zaila da, aldaketa pertsonala eta gizartearen aldaketa eragitea suposatzen duelako”.



Euren ustez alde handia dago emakume feministen eta gizonen feministen artean, hau da, emakumeak hobeto eta gehiago antolatzen direla zentzu horretan gizonenak baino. “Eta logikoa da. Emakumezkoak biktima direlako eta gu erasotzaileak potentzian gizonenak izateagatik. Zaila-

go da gizonen bezala ardura hori hartzea, gure burua berrikustea eta alde horretatik dekonstruitzea”. Gizonenak, berez, pribilegioak dituztela diote, “eta erabili egiten ditugu”.

Zipriztintzen taldekoentzat garrantzitsua da egiten dutena kontatzea, baina are garrantzi-

**BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN**  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU  
**ZUK ERABAKI**

**SPARA**  
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36. 3º 48260 Ermua - Bizkaia

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Bitxi-denda Tailor propioa Edoju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

**PUB YOMY**

Zubiaurre kalearen bihotzean

tsuagoa da hori zergatik egiten duten azalzteza. “Ermuko mugimendu feminista oso indartsua izan da historian zehar eta horregatik iraun du hainbeste urtez gure taldeak. Gu hortik irten ginen, mugimendu feministaren ekimenez”.

### Hausnartu eta ekin

Hamar urte hauetan hainbat ekintza antolatu dituzte, baina egunerokoan egindako lana da aldarrikatzekoa. Bi ildo jarraitu dituzte. “Batetik, hausnarketa pertsonala, gizontasun berriak bilatzeko eta maskulinitate hegemonikoa apurtzeko. Bestetik gizartea transformatzeko lan egiten saiatu gara”. Horrela, sentsibilizazio ekintzak egin dituzte, gazteei hitzaldiak eskaini dizkiete eta gizonetzkoak feminismoaren inguruan hausnartzeko jarduerak antolatu dituzte. “Beharrezko lana dela pentsatu izan dugu eta urteetan zehar ikusi dugu balio izan duela”.

Hamar urte hauetan “sare zabala” ehundu du Zipriztintzenek eta atxikimendu handia lortu du. “Herrian eragina dugula ematen du”. Ermuan feminismoak duen antolakuntzagatik du eragina Zipriztintzenek, euren iritziz. Hori bai, pentsatzen dute ez dietela gizonetzkoen artean pedagogia egiteko ardura eman behar. “Gure ardura gizonetzkoen artean eragitea da”.

Berdintasuna lortzeko bidean zein paper jokatu behar dute gizonetzkoek? “Askotan eztabaidatu den kontua da, baina gizonok dugun arazo bat da. Borroka honetara iritsi berri gara eta gure tokia zein den jakin nahi dugu. Emakumezkoek 200 urte darमतate borroka honetan eta gu baino askoz ere gehiago dira; eta gu lau katu gara eta mugimendu honetan non gauden jakin

nahi dugu. Lasai egon behar gara, lana egin eta tokia irabazi behar dugu”. Eurek gizonen inguruan egiten dute lan, gizonengana heltzea da euren helburua. Gizon Sareako eta antzeko beste taldeekin esperientziak partekatzen dituzte urtean behin. “Gainera, garrantzitsua da esatea emakumeekin batera egiten dugula lan”. Emakumeei entzun nahi diete Zipriztintzen taldekoek eta, gero, entzundakoari erantzuna ematea da elkarteko kideen nahia. Talde feministek gizonetzkoen inplikazioa eskatzen dute, beharrezkoa eta premiazkoa ikusten dutelako, eta Zipriztintzen taldekoek zentzu horretan egiten dute lan.

### Bilerak hamabost egunero

Zipriztintzen taldekoak hamabostean behin elkartzen dira eta saio ezberdinak egiten saiatzen dira. “Gauzak antolatu eta egiteko joera izan dugu beti gizonetzkoek, eta garrantzitsua da, baina gauzak irakurtzen ditugu, hainbat gaien inguruan hausnartzen dugu, eta taldeko kideak maitatu eta lagunak izaten saiatzen gara”. Errespetuz egiten dute berba beti, “ez gara beste pertsona baten gainetik geratzen edo arrazoia izaten saiatzen”. Dinamika ezberdinen bitartez taldeko kideen parte hartzea sustatzen dute eta guztien iritzia dira garrantzitsuak. “Elkarri zaintzen saiatzen gara, zainketa oso garrantzitsua dela uste dugulako”.

Hainbat ekintza antolatu zituzten elkar-tearen hamargarren urteurrena ospatzeko, baina urteroko jardunean berdin jarraitzen dute berdintasunaren alde lanean. “Barrenera begira tailerrak egiten ditugu taldeki-deentzat (sakonagoak eta espezifikagoak), taldetik kanpoko gizonetzkoek zuzendu-



tako ekintzak egiten ditugu (irekiak) eta emakumeekin batera ere hainbat gauza egiten ditugu”.

### Etorkizunean ere lan

Taldeak modu positiboan ikusten du etorkizuna, baina argi daukate lanean jarraitu behar dutela. “Bide bat egin dugu, eta nahiz eta gauza asko egin ditugula pentsatu, gutxi da eta asko daukagu egiteko epe luzera”. Aurrerapausoak ematen jarraituko dute, egindakoa aztertzen eta emakumeekin kontrastatuz, euren dinamika zein jarraipen egin ikusiko dute. “Adibidez, iazko Martxoaren 8ko greba ondo iriteteko gizon bezala hartu genuen parte, eta aurten ere aliatu feminista bezala egongo gara. Aurten herriko gizonetzkoak koordinatzeko prest gaude, benetako laguntza eskaintzeko greba horretan”.

Berdintasunaren alde busti eta zipriztintzen nahi du taldeak. Ateak irekita dituzte eta herriko gizonetzkoak ongi etorriak izango dira. “Zaila da bustitzea eta are zailagoa da zipriztintzea”, baina horrela jarraituko dute etorkizunean, gero eta gehiago bustitzen, gero eta gehiago zipriztintzeko.

Ekhi Velar

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak  
[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXKO GILTZEN  
KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

**esonline**<sup>®</sup>



846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

[esonline.es](http://esonline.es)



**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak  
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**irale**  
 Hortz Klinika  
 Clínica Dental  
 C/ Zeharkalea, 8  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 Tel: 943 17 71 94

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen  
 den odontologia  
 La odontología  
 que se adapta a tí  
**SAN PELAYO**  
 HORTZ KLINIKAK • CLINICA DENTAL  
 Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1284  
 • P.A.D.I  
 • IMQ  
 • SANITAS  
 • DENTYRED  
 • AZKARAN  
 • OCASO  
 943 17 04 04  
 info@clinicasanpelayo.com  
 San Pelayo Zeharkalea 5  
 48260 Ermua (Bizkaia)

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hortz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
 Hortz klinika berri eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina García Pérez  
 Belar-denda eta dietetika  
 • Elikagai biologikoak  
 • Terapia naturalak  
 • Naturopatarekin kontsultak  
 • Masajeak  
 • Dietistarekin kontsultak  
 • Kosmetika biologikoa  
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

## Bilboko Itsas Museora bisita

Urtarrilaren 16an, Anaitasuna ikastolako 2. mailako ikasleak Bilboko Itsas Museoa egon dira. Gelan lantzen ari diren proiektuaren barruan kokatu dute txangoa. Itsasoa eta itsas kultura ikasbide, hainbat kontzeptu eta ezagutza lantzen dituzte.



## Apraitzeko HUA

Agenda 21eko programazioarekin jarraituz, Anaitasuna ikastolako ikasle talde bat, otsailaren 24an, Elgoibarko HUA (Hondakin Uren Araztegia) ezagutzera joan da. Ordu eta erdiko bisita gidatua, ikusi dute zer-nolako tratamendua jasotzen duten hondakin urek. Ondoren, bildutako informazioa ikastetxeko gainerako ikasleekin partekatuko dute.



## Danborrada

Aurten ere, hainbat urteetan egin ohi den bezala, Anaitasuna Ikastolan, Haur Hezkuntzako ikasleek, San Sebastian eguna ospatu zuten urtarrilaren 18an. Ikastolako txikiak, bere jantzi dotoreekin, guraso eta beste ikasleen begiradapean gogor astindu zituzten danborrak.



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Ile-apaindegia bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

# Pentsiodunen astelehenak

Herriko pentsiodunek borrokan hasi zuten 2018a eta berdin jarraitzen dute 2019an. Astelehenero kalera irteten dira euren (eta herritar guztien) eskubideak aldarrikatzeko eta horrela jarraituko dute helburuak lortu arte. Herritar ugari biltzen dira kontzentrazio eta manifestaldietan, baina jende gehiago batzea espero dute mugimendu hau kudeatzen dituzten kideek.

Beste herri batzuetako pentsiodunak mugitzen hasi zirela ikusi nuen eta, gu zergatik ez?”, dio Mari Jose Cidek. Horrela hasi ziren Ermuko pentsiodunen protestak. “Udaletxera joan nintzen, kontzentrazioak egiteko zer egin behar zen galdetu nuen eta martxan jarri nintzen”. Bere kabuz hasi zuen mugimendua eta gaur egun ehundaka kidek eman diote atxikimendua Mari Josek hasitako bideari. “Facebookeko ‘Ermua Opina’ taldean eman nuen honen berri eta jende asko etorri zen lehen kontzentrazioa”.

Urtebete daramatzate astelehenero euren (“eta gizarte guztiaren”) eskubideen alde borrokan. Hauek dira aldarrikatzen dituzten neurriak: Pentsioen Sistema Publikoak pentsio publiko duinak bermatzea; pentsio guztien KPI igoera; pentsioak gutxienez 1.080 eurokoak izatea; indarrean dauden pentsio erreformak indargabetzea;

jasangarritasun faktorearen erabateko indargabetzea; jubilazioen penalizazioari ezetz esatea; eta pentsio publikoak EPSV-en ordez ez aldatzea eta hauek dituzten onura fiskalak atzera botatzea.

Gaur egun sei lagunek koordinatzen dituzte Ermuko pentsiodunen protestak eta Bizkaiko Pentsiodunen Mugimenduaren barruan daude. “Jendeak protestarako gogo handia zeukan hasieran”, diote, baina onartzen dute gaur egun jende gutxiago batzen dela asteleheneroko protestetara, “baina jende asko batzen gara eta badakigu gure aldarrikapenekin aurrera egin behar dugula”. Protestak hasi baino lehen jendea “oso erreta” zegoen, pentsioek %0,25eko igoera izaten zutelako. “Eskutitz batean ematen ziguten horren berri eta eskutitzak igoerak baino gehiago balio zuen”. 2019an pentsioak %1,6ko balioa hartu dute, baina pen-



tsiodunek borrokan jarraituko dute. “Neurri honek ez gaitu asetzen, inolaz ere”. Astelehenero, azken urtean bezala, pentsiodunak kalean egongo dira.

## 52 urtez gorakoentzako subsidioa

Mari Onecak 52 urte gorakoentzako subsidioaren aldeko plataforma batean egiten du lan. “Zapateroren gobernua ezarri zuen 52 urte gorakoentzako subsidioa 2008 urtean eta PP-k erabaki zuen 55 urtera igo-tzea. Gainera, erabaki zuten kobratu behar zena familiaren errentaren arabera izatea”. Gizarte-segurantzian 15 urtez kotizatu duen jendeari zuzentzen zaion neurria da, baina horietako sei urte langabezian kotizatu behar dira. “Ez da 52 urte dituen edonori ematen zaion subsidioa, baldintza batzuk bete behar dira”.

Gobernuak erabakia hartu zuenean ia inor ez zen mugitu, “lo geratu ginen”, dio Onecak, “gizartea anestesiatuta zegoen”. Gero bai. “Jendea mugitzen hasi zen, sinadurak lortu genituen eta Auzitegi Konstituzionalera eraman genuen 52 urtetik 55 urtera pasatzearen gaia”. Bost urte eta gero sententzia eman zuten. “Gure alde eman dute”, Onecaren berbetan, “Konstituzioaren aurka dolako familiaren errenta eskatzea horrelako laguntza bat eskatzeko. Hala ere, beste guztiak berdin jarraitzen du: 55 urte bete behar dira kobratzeko”.

Pentsiodunek, Ermukoek ere, eskaera hau jasotzen dute euren errebindikazioetan, “eta antzeko kasuak dituzten herrikideei egoera honen berri informatzeko aprobetxatu nahi dugu, posible delako jende askok ez jakitea”.

Ekhi Velaz

Hamburguesería  
**TITANIC**



Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



**LONDON**  
-taberna-



**Udal Euskaltegia**

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**Infreñu**  
**Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**KARABIXA**



**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



# Ituaren erdian

**B**etiondo arku-tiro taldeko Basilio Izquierdo presidentearekin, Jose Mari Muñoz presidentea ordearekin eta Isidro Ganuza diruzainarekin arku-tiroaren inguruan jardun genuen solasaldi atseginean Ermuko taberna batean eta klubaren sorreraren berri eman ziguten. “1999. urtean, Ermuko Txirringulari Taldeko kidea nintzela, Udaleko jai-batzordean arku-tiroa egin nahi zuen mutil batekin egin nuen topo”, dio Izquierdok, “eta bileratik irten ginenean bere asmoen berri jakin nahi izan nuen”. Hainbat kirol egin nahi zuen jendea zegoela esan zion mutil horrek, “baina iruditu zitzaidan ideiak ez zeudela oso argi”. Orduan, Izquierdok bere aldetik tira egin eta arku-tiro taldea sortu zuen beste lagun batzuekin. “Handik ez zen beste kirol-talderik irten, gurea bakarrik”.

Bost kide egon ziren taldearen hastapenean eta jende ugari ibili da Betiondo taldean ordutik. “Gu hirurok gara hasieratik gauden kide bakarrik”, dio Izquierdok. “Etorri diren askok berehala lortu nahi izan zituzten emaitza onak, baina pazientzia eta iraunkor-

tasuna behar da kirol honetan”, aipatzen du Muñozek. Gaur egun 18 kidek osatzen dute taldea.

## Gehlenak jaurtiketa tradizionallean

Arku-tiroak hainbat modalitate ditu. “Konposatua dago, berriena eta zailena dena; arku-tiro olimpikoa ere badago, Joko Olimpikoetan ikusten dena; gero tiroketa biluzia dago, jaurtiketa olimpikoa bezalakoa baina inongo osagarririk gabe; eta azkenik, jaurtiketa tradizional instintiboa ere badago”, dio Izquierdok. Betiondoko kide gehienek jaurtiketa tradizionallean hartzen dute parte, baina batzuk jaurtiketa olimpikoa ere egiten dute.

Modalitate batean parte hartzen duenak ez du beste modalitate batean parte hartzen, “batetik bestera alde handia dagoelako”, Ganuzaren berbetan. “Dedikazio handia behar da modalitate bakoitzean ondo aritzeko”, dio Muñozek. Anaitasuna ikastolaren gimnasioan entrenatzen dute Betiondokoek, “aurretik ondo prestatu egoten den tokian, segurtasun kontuak direlako”, Izquierdoren berbetan,



eta jende berriari kirola erakusteaz gain, euren teknika hobetzen dute.

Izquierdo, Muñoz eta Ganuzak euren kabuz ikasi zuten geziak jaurtitzeko, eta ekitearen poderioz emaitza onak lortu dituzte. “Euskadi eta Bizkaiko txapeldunak izan gara gutako hainbat”, dio Izquierdok. Gaur egun ere maila handia mantentzen dute eta arerioek errespetuz hartzen dituzte lehiaketetan.

## Urteko lehiaketak

Modalitate bakoitzean distantziak eta jaurtitzeko moduak aldatzen badira ere, gezia ituaren erdira jaurtitzeko da jaurtitzaileren helburua. “Orduan eta erdirago eman, gero eta puntu gehiago lortuko dituzu”, dio Ganuzak. Orokorrean Euskal Herri mailan lehiatzen dira Betiondo taldeko kideak,

baina pare bat alditan Espainiako Txapelketan ere ibili dira Federazioaren gonbidapenarekin.

Denboraldi honetan gelako txapelketetan ibili dira orain arte, hau da, *indoor-txapelketetan*; baina aire libreko lehiaketak hasiko dituzte laster. Oraindik ez dira datak zehaztu, “lehiaketak klubek antolatzen dituztelako eta ez delako erraza horrelako txapelketak antolatzea”. Urtean zehar Euskadiko Ligan lau txapelketa jokatzen dituzte, eta baita Euskadiko Txapelketak eta Bizkaiko Txapelketak ere eta, bestetik, han eta hemen antolatzen diren lehiaketetan ere egoten dira. “Aurten 15-20 txapelketetan izan gara”, Izquierdoren berbetan. Urteek egin ahala punteria zorrozten du talde honek.

Ekhi Velar



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

solozabal  
 tabakoak

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33



**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
 SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

# Gure bazterrak


**K**altxango eraitsiko dute laster, jaiotetxea. Aurretik beste asko joan ziren, inguruko guztiak: Kaltxangoko beste biak, Zinkonekua, Arrako, Torreta zaharra... . Zaharrak ziren, bai, herriaren erdi inguruan kokatuta. Traban.

Oraingo etxeko karrejuan hiru pintura koadro dauzkagu zintzilik eta argazki bat, zuetariko askorentzat ezaguna, "Ermua año 1920" eskuz idatzita duena. Berrogeita hamarren bat etxe eta baserri ikus daitezke bertan. Ia denak desagertu egin dira, bota egin ditugu. Izelaietako etxe ilara, eliza, Baldespinako Markesaren jauregia, Lobiano, Erdikokaleko eta plazako etxeren batzuk baino ez zaizkigu gelditzen. Gure errekak ere ez dira ageri, ezin ditugunez bota, estali egin ditugu errepideak edota etxeak gainean egiteko.

Arimarik gabeko herri bat eraiki dugu.

Asko disfrutatzen dut, furgoneta hartuta, Frantzia edo Italiara noanean oporretan. Herri guztiak kontserbatzen dute beraien alde zaharra, zabaltzea honen inguruan egin dute, horregatik dira hain ederrak. Inbidiak jaten nau Elorrioko, Elgoibarko, Markinako edo Elgetako kaleetan pasioan nabilenean, nire herria nolakoa izan litekeen irudikatzen baitut.

Ez dut artikulua hau idatzi ondo egin ez direnak edo egin zitezkeenak inori leporatzeko, garai batean, herriaren zabaltze bizkorra egin behar eta hala gertatu zen; baina, gure etxera, Kaltxangora bueltatuz, sumatzen hasia naiz ez dugula atsendenik hartuko herriko harrizko etxe guztiak suntsitu arte. Etxe arrunta da Kaltxango, ez du, nire uste apalean, balore arkitek-



*Gaizka Areitioaurtena*

toniko berezirik, baina gure ondarearen azkenetariko alea da, ale xumea.

Urtero joaten naiz nire alabekin Sirimiri taberna ondoko pegorako ate ederraren aurrean erretratua ateratzera, lehen plazara ere joaten ginen Benita Portalenera. Orain, hori ere ez dago. Aukerak murriztuz doaz.

“ *Inbidiak jaten nau Elorrioko, Elgoibarko, Markinako edo Elgetako kaleetan pasioan nabilenean* ”

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Ervailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel.: 943 17 65 61 ERMUA

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

**arral** arral97.com

Tel.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Añada Real
- Yllera taldea
- Gomez Cruzado
- Pazo Señorans
- Vicente Gandía
- Oriol Rossell
- Astobiza txakolina
- Txakoli Akarregi
- Milana
- La Loca Juana
- nítida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**IZASKUN TXURRUKA**

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com



Abenduaren 30ean  
Zorionaaak prexioso!!!  
2 urtetxo!  
Etxeko danon partez patxito potolo bana. Asko maitxe zaitxugu, segi horren alai!!



Urtarrilaren 18an  
Zorionak Gorka zure 6.urtebetetzean guraso, Ander eta familia osoaren partez. Segi horren alai eta artista. Musu handi bat!



Urtarrilaren 21ean  
9 urte egiten ditu .  
Zorionak gure etxeko txapeldunari! Muxu pila familiakoen partez!



Zorionak, Aitor! Dagoneko 5 urte! Zaku bat musu etxeko ume handi bezain jatorrari etxeko guztien partez

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: Otsailaren 13a.

**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

**Pub SCORPIO**  
Zubiaurre, 21  
ERMUA



**Proba-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42



**T** XALAPARTA  
ABERNA  
Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!  
Erdikokale 13  
(Ermua) **ENKARGYAK**  
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluquería  
Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00  
943 170474 688819336





## MALLABIA 1948

San Miguel Txiki egunean, maiatzeko bigarren domekan, Osmalde baserriko atarian, bazkal ondoren.

Rosario Aranburu, Dionisio Velar, Paulita Totorikaguena, Alejandro Aldekoa 'Atxanieta', Juanito Lasuen, Juan Zengotitabengoa, Josefa Idarraga, Juan Angel Aranburu, Florentino Aranburu, Edurado Gangutia, Margari, M<sup>a</sup> Asun Zengotitabengoa, Jesus Zabala, Emilia Aranburu, Esteban Idarraga, Maria Astigarraga, Francisca 'Pantxike', Fakunda Aranburu, Julio (eibartarra), Martxel (zaldibartarra), Jose Luis Aranburu, Tomas Aranburu, Primo Aranburu, Julio Zabala eta Laureano Aranburu.



## ERMUA 1919



Doroteo Olañeta Onandiak 6 urtetxo zituen, pintxo-pintxo jantzi eta erretratatzerara eraman zuten egun horretan. Gizonduta, Eibarko geltokian egingo zuen lana, *guardaaguja*s bezala; bizikletan joaten zen bertaraino, goizeroko ganauen zereginak amaituta. Ermuko estaziotik gertu, trenbide gainean zegoen euren Vista Alegre baserrietxea (gaur Abeletxe egoitzaren parajeetan) eta hango behi, ardi, konejo eta oilo ugarietara kargu egin behar. "Goxaldian, bostak aldera izartzen nintzan eta, erdi lo, zuzen kortara, biharrera orduko behiak jatzi bihar izaten nitxuzan-eta!". Doroteori gainera ortua gustatzen zitzaion eta astia zuenean hantxe entretenitzen zuen bere burua.



Urte berria hasi dugu eta horrekin batera etorri dira asmo, erronka eta helburu berriak. Bakoitzak zerrenda luzea egin dezake, baina guk bi aukera proposatu ditugu 2018an astindu ditugun hizkuntza ohituren harira.

Zein da zure helburu nagusia 2019. urteari begira?

Guztira 27 bozka jaso dira inkesta honetan.

19% Euskara gehiago entzun

81% Euskaraz gehiago egin



Bitxibitxi Euskaraz eginez gero ...erantzuna euskaraz entzuteko aukera ere hor dago 😊

Zoragarria! · Erantzun · Mezua · 1a



**ZINEA**

*Hilaren 2tik 4ra*  
*Hilaren 9tik 11ra*  
*Hilaren 16tik 18ra*  
*Hilaren 23tik 25era*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian. Hainbat  
 ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 7*  
*Hilak 14*  
*Hilak 21*  
*Hilak 28*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 3*  
*Hilak 10*  
*Hilak 17*  
*Hilak 24*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.

**ANTZERKIA**

*Hilak 1*  
 "Ele! Lauaxeta-Lorca",  
 Karabansarai Produzioen  
 eskutik. 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 10 €

*Hilak 15*  
 "Royal Clown", Sutegi  
 Antzerkiaren eskutik.  
 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 8 €

**MUSIKA**

*Hilak 4*  
 Agata Deunaren kalejira.  
 18:00etatik.

*Hilak 18*  
 Blues kontzertua: Rory peo-  
 ples & The Congress.  
 20:00etan. Lobiano Kultur  
 Gunean. Sarrera: 10 €

*Hilak 22*  
 Kontzertua: "Nino Bravo  
 gogoan". Serafin Zubiri &  
 Alboka Musika Eskolako  
 Banda. 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 12 €

**UMENTZAKO EKITALDIAK**

*Hilak 8*  
 Haurrentzako ikuskizuna:  
 "Go!azen 5.0" Pausoka  
 produkzioen eskutik.  
 17:00 eta 19:00etan.  
 Ermua Antzokian. Sarrera:  
 6 €

*Hilak 9*  
 Haurrentzako ipuin-konta-  
 keta ingelesez.  
 17:30ean. Lobiano Kultur  
 Gunean.

*Hilak 23*  
 Haurrentzako ipuin-konta-  
 keta. 17:30ean. Lobiano  
 Kultur Gunean.

**INAUTERIAK**

*Hilak 28, Eguen Zuri:*  
 15:30ean: Oilarraren  
 jokoa.  
 17:00etan: Diskofesta:  
 Xaibor Dja

*Martxoak 1, Hartz*  
*Eguna:*  
 18:30ean: Kalejira  
 K.Orbe Plazatik

*Martxoak 2:*  
 12:30ean: Kalejira:  
 Kuadrillen arteko mozorro  
 lehiaketaren partaiden  
 kalejira

13:00etan: Kalejira:  
 Irulitxa txaranga

7:30ean: Haurrentzako  
 txokolatada

18:00etan: Haurrentzako  
 erromeria: TTR taldea

19:00ean: Kalejira:  
 Irulitxa txaranga.

19:30ean: Haurrentzako  
 mozorro lehiaketa.

22:30ean: Kontzertua:  
 Bombai

23:30ean: Dj Festa: Los  
 40 principales

*Martxoak 5:*  
 16:00etan: Haurrentzako  
 diskoteka

18:00etan: Kale ikuskizu-  
 na: "Zeppelin". La Baldufa  
 Teatroa.

19:00etan: Kalejira:  
 Ustekabe txaranga

23:00etan: Dj Festa Oihan  
 Vegarekin

**ERAKUSKETA**

*Hilaren 4tik 17ra:*  
 Argazkiak: "Ermua Antzokia  
 2018". (Santos Vegaren  
 omenez). Oscar Blanco.  
 18etatik 20etara.

*Hilaren 18tik 12ra:*  
 Argazkiak: Bide luzea ber-  
 dintasunarantz: Euskadiko  
 emakumeak XX.mende-  
 an. 18etatik 20etara.

**BESTELAKOAK**

*Hilaren 15etik 17ra*  
 I Click azoka. Goizez eta  
 arratsaldez. Merkatu pla-  
 zan.

Patxi López



**TXINDURRI  
 TALDEA**  
 Tokian  
 tokiko

**PRO**  
 arraindegia



**ITSASKIAK  
 ARRAIN FRESKOAK  
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA



**FUB**  
 Mediku psikiatra  
 Psikoterapia psikoanalitiko  
 Psikosomatika

**Fernando Urizar Barandiaran**

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
 Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
 furizar1@yahoo.com



**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



**HURBILDU ZAITEZ GURE ESKOLA  
EZAGUTZERA!**

**MATRIKULAZIOA**

**URTARRILAREN 28tik  
OTSAILAREN 8ra**

**KONTAKTUA**

**943 17 90 36  
matrikula@eskolabarri.com**

**EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hezkuntza proiektua  
Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria (IRAES) / IKT Heldutasuna / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Berriztatzaileak  
Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila  
Eskolaz Kanpoko Ekintzak/Eskolamendi /Ingelesa 3 urtetik aurrera**



Mendi irteerak, kainoak, materialaren alokairua, argazkiak, bideoak,  
informazioa, mapak, liburuak, federatzeko tramiteak, ikastaroak, hitzaldiak  
... eta jende ona benetan!

<http://www.artarrai.com>  
<http://artarrai.blogspot.com/>  
artarrai@euskalnet.net  
ostegunero,  
19:30etik 20:30era  
liburutegiaren gainean

